

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 315.679 euroko gastua baimendu du enpresak nazioartekotzen laguntzeko zerbitzuetan

Nafarroako Nazioarteko Planeko ekintzak garatzeko erabiliko da

Lunes, 06 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran zenbait urtetarako gastuak onartu ditu 315.679 eurotan, enpresak nazioartekotzen laguntzeko zerbitzuen diru-laguntza eskaerak bideratzeko xedearekin.

Zerbitzu horiek Nafarroako Nazioarteko Planaren bi ekintzen garapenari dagozkio: enpresen nazioartekotze-estrategiak zehazteko aholkularitza-zerbitzua eta adimen lehiakorreko zerbitzua sustatzea; eta alor fiskal eta legezkoan aholkularitzako etenik gabeko zerbitzuak sustatzea.

Haietako lehenengoaren helburua da, laguntzak ematea Espainiako Kanpoko Merkataritza Institutuko programetan sartuta ez dauden tamaina guztietako enpresei eta ustiapen-partzuergoei itzuli beharrik gabeko diru-laguntza partzialen forman. Laguntza horiek maila ezberdinetako estrategia-erabakiei buruzkoak, jatorrian nahiz helmugan nazioartekotzeko langileen ordezkoko figurei buruzkoak, aholkularitza fiskal eta legezkoari buruzkoa da eta adimen lehiakorreko zerbitzuei buruzkoak dira.

Bigarren jardueraren helburua enpresa nafarrei laguntzea da alor fiskalean eta legezkoan aholkularitza-zerbitzuak diruz lagunduz; horren barnean izango dira helmugako era guztietako (administratiboa, lanekoa, zibila, merkataritzakoa...) eta fiskaleko legezko aholkularitzako bideratzeak eta zereginak egitea.

2008-2011ko Nafarroako Nazioarteko Plana

[Nafarroako Nazioarteko Plana](#) 2008ko azaroan jaio zen oinarrizko bi helburu lortzeko borondatearekin: alde batetik, Nafarroako gizartea prestatu eta sentsibilizatzea, herritar guztiak ingurune orokor batean pertsonalki eta profesionalki garatzeko aukerak baliatzeko gai izan daitezen; bestetik, enpresa nafarrei laguntzea munduan lehiatzen laguntzeko.

Oinarrizko helburuak Nafarroako gizartea prestatu eta sentsibilizatzea da eta enpresei laguntza ematea.

Horretarako, plan hau egin da, eta 5 ardatz estrategikotan egituratuta dago, haietako bakoitza egungo egoeraren diagnostikoan eta helburu estrategikoetan adierazitako jardueraren beharren arabera bideratuta: hezkuntza eta gizartea; kanpoaldean Nafarroak duen irudi ekonomikoa; itunak eta sareak; Europako eta nazioarteko proiektuak; eta enpresa nazioartekotzea.